


Zuk egin erdaraz, nik euskaraz egingo dut

- Argia aldizkariaren 2221 alean Onintza Iruretak artikulu interesgarria idatzi du elebitasun pasiboari buruz, eta honek nolako aukerak zabaltzen dizkigun euskal hiztunei, eta erdaldunei euskarara hurbiltzeko.
- Informazioa gehiago [hemen](#)



Autoestimua



Imanol Miner hizkuntza teknikariari elkarrizketa egin dio Berriako Mikel Peruarena kazetariak Topagunearen hausnarketa prozesuaren harira, eta, besteak beste, dio "lantokian sor liteke euskara elkarte"

- Informazioa gehiago [hemen](#)

Hizkuntza-kudeaketaren onurak

- Buruntzaldeko udalek iaz abiatutako kanpainari eutsi, eta hizkuntza-kudeaketari buruzko hitzaldiak antolatu dituzte eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Aurtengoan, eredu guztietako ikasleei eskaini zaie saioa; izan ere, hizkuntza-kudeaketa guztioi eragiten digun aldagaia baita, ez soilik hizkuntza bat edo beste dakitenei.
- Hitzaldiaren helburu da hizkuntzen garrantziari buruz hausnartu, eta ikustarazi hizkuntzak ikasi eta erabiltzeak nolako onura dakarkion norberari eta enpresari. Horretarako, gizartean oso errotuta dauden hainbat ideia jartzen dira kolokan.
- Ba al zenekien...?
- Oso gutxi direla hizkuntza komunitate bakarrez osatutako estatuak (Europar bakarra, Islandia, eta euskarak baino hiztun gutxiago ditu, 200.000)

- Estatu Batuetako konstituzioak ez duela aipatzen zein den bertako hizkuntza ofiziala?
- Katalana munduko hizkuntzen artean 88. dela hiztun kopuruan?
- Euskara hiztun gehien dituzten %10 hizkuntzen artean dagoela, eta, beraz, hizkuntza ertaina dela?
- Espainiako biztanleen %40 eremu elebidunetan bizi dela, eta horietako biztanle gehienak elebidunak direla?



Lankide berriak

Buruntzaldeko udalek ideia lehiaketa antolatu dute lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoaren aurrera begirako bidea definitzeko, eta Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzaren proposamena aukeratu dute. Proiektu horren oinarriak dira:

- Gizartea eta eragileen aldeko jarrerak indartu eta ikustarazi.
- Enpresetara haien beharretatik abiatuta hurbildu, eta behar horien eraberako eskaintza egin